

**BIDAIA OFIZIALA PARISERA - VIAJE OFICIAL A PARÍS****EUSKADIREN FRANTZIAKO ORDEZKARITZAREN AURKEZPENA
PRESENTACIÓN DE LA DELEGACIÓN DE EUSKADI EN FRANCIA**

2022-10-27 París 27-10-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Zaudeten herri agintari eta herri ordezkariok, guztiok, erakundeetako ordezkariok, jaun-andreok, arratsalde on!

Eskerrik asko denoi, gure deialdiari erantzuteagatik.

Eskerrik asko, Marian eta Arantza, zuen hitzengatik eta Ordezkaritza berri hau irekitzeko egiten ari zareten lanarengatik.

Gaurko ekitaldi honek esan nahi oso berezia dauka gu guztiontzako. Lehenik eta behin esan nahi historikoa.

Duela 85 urte Eusko Jaurlaritzak Euskadi utzi behar izan zuen. Denok dugu gogoan Agirre Lehendakariaren hitzak Turtziozeko adierazpenean: “Lurraldea konkistatu ahal izango dute, baina Euskadiren arima ez, Euskadiren arima ez dute inoiz konkistatuko”.

Eusko Jaurlaritzak hemen, Parisen, ireki zuen Egoitza.

Garai zail haietan, Espainian diktadura indartzen zen heinean, hemen iraun zuen gure Gobernuaren izenak eta izanak. Hemendik, egunez egun, urtez urte, Euskadiren arima bizirik gorde zuten.

Gaur, Egoitza berri honetan, gure lehen oroimena Agirre lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza aitortzeko da.

Katea ez da eten!

Esan nahi historiko horrekin batera, nazioarteko ikuspegia ere azpimarratu behar dugu.

Hemen, Parisen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan hain zuzen ere, Nazioarteko Taldeen lehen bilerak deitu ziren. Horrek erakusten du, Eusko Jaurlaritzak, lehen egunetik, Europa Batuaren aldeko asmoarekin bat egin zuela. Egoitza berri honek gure Europaren aldeko apustua, orain ere, bizirik dagoela erakusten du.

Europarrak eta europazaleak gara.

No partimos de cero. Hoy recordamos las reuniones mantenidas en la sede del Gobierno Vasco en París por los Nuevos Equipos Internacionales. Recordamos el vínculo y la participación del Lehendakari Agirre en aquel germen de la Unión Europea.

No partimos de cero. Marian Elorza ha citado el marco de la internacionalización de Euskadi Basque Country.

Somos un Pueblo abierto que aspira a ganar presencia y tener su propia voz en Europa y en el mundo.

Esta será la séptima Delegación de Euskadi en el exterior.

Responde a un Reto de País, porque todas las instituciones, universidades, asociaciones, federaciones o empresas vascas compartimos la ambición de tener una presencia y una relación internacional activa y constructiva.

Sabemos que solo trabajando juntos podemos ganar el reconocimiento que deseamos. Así lo hemos demostrado con el “Gran Départ” y, con ese mismo espíritu, nace esta nueva Delegación: trabajar juntos para impulsar la internacionalización de Euskadi.

París y Francia tienen una connotación especial para nosotros y nosotras. Compartimos una relación histórica, económica, social y cultural, “bailamos juntos a ambos lados de los Pirineos” en palabras de Voltaire. Compartimos una relación institucional con la Mancomunidad de Iparralde, en el marco de la Eurorregión, la Comunidad de Trabajo de los Pirineos o el Arco Atlántico.

Nuestro objetivo es fortalecer estas relaciones.

Agradecemos la presencia de toda la representación institucional de Euskadi en esta Delegación, y la disposición a compartir la filosofía “auzolana”, la vía vasca para seguir avanzando en la internacionalización de Euskadi.

Gaur, beraz, zuen guztion presentzia eskertzen dugu. Etxean zaudete. Hau zuen etxea da, Euskadiren etxea, ez Eusko Jaurlaritzarena soilik, zuen guztion etxea da, Erakunde guztiok ordezkatzten dituzuenok etxea, Parisen eta Frantzian.

Erakunde guztien, eragile sozio ekonomiko guztien, eta gizarte osoaren Etxea da Ordezkaritza berri hau.

Gaur, Agirre lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza gogoan, Euskadiren izena eta izana indartzen eta zabaltzen jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi dugu. Horregatik, eskerrik asko gaurko ekitaldi honetan parte hartzeagatik.

Eskerrik asko Euskadiren nazioartekotzearen alde konpromisoa erakusteagatik.

Eskerrik asko, gaurko aitortza, gogoia eta ilusioa partekatzeagatik!

Eskerrik asko, ongi etorriak eta urte askotarako izan dadila!